



### EKONOMIA ZIRKULARRA, ZUK ERE NAHI DUZU?

Materialak eta baliabideak ahalik eta luzaroen irauaraztea da helburua

### NUTRISCORE: NUTRIZIO ETIKETA BERRIA

Elikagai eta edarien nutrizio-kalitatearen adierazgarri izango da

### ONLINE EROSKETAK: BLOKEO GEOGRAFIKOA

Oztopo hori kendu da mugarik gabeko merkatu digital bakarra sustatzeko helburuarekin

## ARGIA ETA GASA ETXEZ ETXE SALTZEA DEBEKATU DA

Konpainiek telefonoz edo informazio-guneen bitartez kontrata dezakete, besteak beste





### 4 Kontsumoa gaur

### 8 Artikuluak

- › Argia eta gasa ethez etxe saltzea debekatu da
- › NutriScore: nutrizio etiketa berria
- › Ikuskatze-kanpainak

### 13 Gaurko gaia

Ekonomia zirkularra, zuk ere nahi duzu?

### 16 Prestakuntza

Nola saltzen digute jaten duguna?

### 17 Araudia

Online erosketak: blokeo geografikoa

### 18 Kotsultak

### 19 Infografia

10 trikimailu berokuntzan aurrezteko





## EKONOMIA ZIRKULARRA, ZUK ERE NAHI DUZU?

13

Eredu honen funtzionamendua azalduko dizugu: baliabideak aprobetxatzen saiatzen da murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea erabiliz



ARGIA ETA GASA etxez etxe saltzea debekatu da

8



NUTRISCORE: nutrizio etiketa berria

10



IKUSKATZE-KANPAINAK

12



ONLINE EROSKETAK: BLOKEO GEOGRAFIKOA

17



## Etiketak esnearen jatorriaren berri eman behar du

Ba al dakizu erosten duzun esnea nondik datorren? Eta gurina edo igurzteko gazta? Elikagaietako **etiketei erreparatzeko ohitura** baduzu, honezkerokonturatuko zinen esnearen eta esnekien jatorria zein den zehaztea ez dela beti posible izaten. 2019ko urtarriletik **nahitaezkoa** da informazio hori produktu horietako etiketetan adieraztea (dekretuaren aplikaziotik kanpo geratzen dira jatorri-deitura babestuko eta adierazpen geografiko babestuko produktuak).

Datu hori eskuan, kontsumitzaileek informazio gehiago edukiko dute hautaketa egiteko unean.

**Esnearen jatorria elikagai hauetan** guztietan adierazi behar da: esne eta esnegain kontzentratu eta kontzentratu gabeak; gurinaren, esne eta esnegain gatzatuen, jogurtaren, kefirraren eta gainerako esne eta esnegain hartzitu edo azidotuen gazura; esne-gazura eta esnearen, gurinaren eta esnearen gainerako koipeen osagai naturalez osatutako produktuak; gurina eta esnearen gainerako koipeak; igurzteko esne-oreak, gaztak eta gaztanbera. Osagaien artean esnea duten guztietan ere adierazi behar da, baldin eta esnea produktuaren %50etik gorakoa bada.

### Erne!

Litekeena da betekizun berri horiek guztiak betetzen ez dituen produkturen bat aurkitzea. Hori hala da establezimenduek aukera dutelako dekretu hau indarrean hasi **aurretik fabrikatu** zituzten gaiak merkaturatzeko, **izakinak agortu** arte.



### Nola adierazi behar da?

Esnearen eta esnekien etiketan honako hauek adierazi behar dira:

- › **Zer herrialdetan jetzi den:** esnea non jetzi den.
- › **Zer herrialdetan eraldatu den:** esnea zer herrialdetan eraldatu den.
- › Herrialde berean jetzi eta eraldatu bada esnea, beste era batera jar daiteke: **“Esnearen jatorria”**. Esnea non jetzi eta eraldatu den.
- › Non jetzi eta eraldatu den adierazteko, **ingurune geografiko** hauetakoren bat erabiliko da:
  - › Erkidegoko estatua(k) edo beste bat(zuk); edo
  - › “EB” edo “EBtik kanpo” edo “EB eta EBtik kanpo”; edo
  - › “Espainia”, baldin eta Espainian soilik bada jetzi edo eraldatu; halakoetan, ezingo da Espainiaren ordezkari “EB” jarri.



## Enpresa gisa, zer abantaila dauzkat arbitrajearekin bat egitean?

Kontsumitzaileen eta enpresen arteko gatazkak konpontzeko bidea da kontsumo-arbitraja. Euskadin 15.000 establezimenduk baino gehiagok egin dute bat sistema horrekin. Hona hemen sistemaren **abantailak**:

- ✓ Auzi luze eta garestiak saihesten dituzu.
- ✓ Kontsumitzaileei berme-plus bat eskaintzen diezu erosketak egitean.
- ✓ Ospea irabazten duzu, eta, horrela, zure bezeroen konfiantza indartzen duzu.
- ✓ Enpresaren lehiakortasuna handitzen duzu.
- ✓ Zure produktu eta zerbitzuei kalitatezko elementu bat eransteko aukera duzu.
- ✓ Atxikitako enpresen zerrendan egongo zara, [www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus) webgunean kontsulta daitekeena.
- ✓ Arbitraje-zerbitzua zure publizitatean txerta dezakezu.

Atxikitzean, zure atxikimendua egiaztatzen duen **bereizgarri ofiziala** jasotzen duzu. Jar ezazu zure **establezimenduan eta/edo zure webgunean**, kontsumitzaileek jakin dezaten gatazka izanez gero konponbide azkarra eta eraginkorra aurkitzeko aukera badutela.




## Erregaietako etiketa berriei erreparatu al diezu?



2018ko urriaren 12az geroztik matrikulatutako ibilgailuetarako eta gasolina-zerbitzuguneetarako erregaien sailkapen berri bat dago indarrean, kontsumitzaileei erregaia behar bezala hartzeko bidea errazten diena. Mota bakoitzak **diseinu espezifiko** bat dauka, eta beraz, erregaia hartzeko unean, ibilgailu berriaren deposituaren tapan ageriko den etiketak **bat egin** beharko du hornigailuaren etiketarekin.

Neurri horrek Europar Batasuneko 28 herrialdeetan du **eragina**, baita Islandian, Liechtensteinen, Norvegian, Mazedonian, Serbian, Suitzan eta Turkian ere.

### GASOLINA



E letrak etanola adierazten du, eta ondoren daraman zifrak, berriz, erabiltzeko gomendatutako erregaiak gehienez eduki dezakeen etanol-bolumena ematen du aditzera.

### DIESEL



B letrak Biodiesela esan nahi du, eta zifrak, ibilgailuan erabiltzeko gomendatutako gasolioak gehienez eduki dezakeen biodiesel-ehunekoak. XTL letrak adierazten dute ibilgailuak diesel sintetiko edo parafinikoa (petrolio gordinetik eratorri ez dena) onartzen duela.

### ERREGAI GASEOSOAK



H2 (hidrogenoa); CNG (gas natural konprimatua); LPG (petrolio-gas likidotua); LNG (gas natural likidotua).



Ohiko adierazleak ez dira desgertuko, eta beraz, araudi horren aplikazioak ez du inolako aldaketarik suposatuko urriaren 12a baino lehen matrikulatutako ibilgailuetarako.



## Atera iezaiozu probetxua zure mikrouhin-labeari

Mikrouhin-labea labe arrunta baino azkarragoa da, eta hura erabiliz gero **%60-70 aurretzen da energian**; hortaz, zure errezeta batzuetarako aliatu egokia izan daiteke. Berotzeko edo desizozteko erabiltzen dugu normalean, baina beste hainbat aukera eskaintzen dizkigu. Patatak edo barazkiak lurruntan egostea dira adibide praktiko batzuk.



Mikrouhin-labe bat erosterakoan, aukeratu zure benetako premietara egokitutako tamaina eta potentzia duena. Erabiltzerakoan, jarraitu **aholku** hauei:



Erabili ontzi egokiak, eta ez sartu metalezko materialik.



Zatitu elikagaiak sartu baino lehen, horrela azkarrago berotuko dira.



Zulatu lehertu daitezkeen elikagaiak, esaterako, patatak edo barazkiak dauzkaten poltsak, lurrunak kanpora ateratzeko aukera izan dezan.



Eduki garbi, bakteriorik sor ez dadin.

## Zer frutek jarraitzen dute heltzen landaretik bildu ondoren?

Fruta batzuek behin bildu ondoren ere jarrai dezakete heltzen, baita frutaontzian ere. **Fruta klimaterikoak** deitzen direnak dira, eta irudian **ohikoenetako** batzuk ikus ditzakezu.

Fruta hautatzerakoan kontuan hartu: pentsatu egun berean, biharamunean edo geroago kontsumituko duzun.



Ahuakatea



Arana



Kiwi



Sagarra



Madaria



Platanoa



Tomatea



Melokotoia



Meloia



Sandia



Mangoa

**Klimaterikoak ez direnek**, aldiz, landarean heldu behar dute, eta heldutasun onenera iritsi direnean bildu behar dira. Behin erosi ondoren, lehenbailehen kontsumitzea gomendatzen da, galdu ez daitezten. Hona hemen horietako batzuk:



Laranja



Limoia



Marrubia



Gerezia



Mahatsa



Arabisagarra



Granada

# Pneumatikoak: zure segurtasunerako funtsezkoak

**P**neumatikoak garrantzitsuak dira ibilgailuaren **segurtasunarentzat**, eta aldi berean behin **aztertu** behar dira, bidaia bat egin baino lehen batez ere. Besteak beste, honako hauek hartu behar dituzu kontuan, noiz aldatu behar diren jakiteko.

**MARRAZKIA.** Higadura adierazten duen seinaleetako bat marrazkia da; gutxienez 1,6 milimetroko sakonera eduki behar du.

**HIGADURA.** Gomaren higadura irregularra denean, arazo mekaniko bat egon daiteke horren atzean, esaterako, motelgailuak hondatzeagatik esekidura txar bat, gurpilen lerrokadura desegoki bat edo puzte desegoki bat.



**PRESIOA.** Garrantzitsua da presio egokiari eustea; kontsumoa eta emisioak murriztuko dira horrela. Horretarako, kontuan hartu enpresa fabrikatzailearen jarraibideak; presioa gomendatutakoa baino txikiagoa bada, alboetatik lehenago higatuko da pneumatikoa, eta gehiago kontsumituko du. Gehiegizkoa bada, aldiz, erdialdetik higatuko da, itsaspenaren kaltetan.

**KANPO-KALTEAK.** Ondo erreparatu arrakalei, ebakiei... Leherketa bat izan zenezake, zintarriek edo besteren batek eragindako urratuen ondorioz.




**KB  
AHOLKUA**

Egiaztatu, halaber, ordezko gurpilaren egoera, denborarekin materialaren propietateek okerrera egiten dutelako.

## Nola irakurri etiketa

Pneumatiko berriek etiketa bat eraman behar dute, Europar Batasun osoarentzat formatu bera duena:

- 1 Errodadurarekiko erresistentzia:** Erregai-kontsumoan eragiten du. A klaseko pneumatikoak dira gehien aurrezten dutenak.
- 2 Bustian itsasteko gaitasuna:** Frenatzeko gaitasuna da. Esaterako, orduko 80 km-ko abiaduran, A klaseko pneumatiko batzuek 18 metro aurrerago frenatzen dute G klaseko batzuek baino.
- 3 Kanpo-zarata:** Sortutako zarata dezibeletan (dB) adierazten du. Zenbat eta uhin gutxiago eduki marraztuta, orduan eta isilagoa izango da.



### F klaseko pneumatikoak

Joan den **azaroaren 1az** geroztik, debekatuta dago **errodadurarekiko erresistentziari** dagokionez F klasekoak diren pneumatikoak fabrikatzea. Stockean daudenak soilik saltzeko aukera izango da, 30 hilabetez egun horretatik aurrera.



# Argia eta gasa etxez etxe saltzea debekatu da

**Elektrizitatea eta gasa merkaturatzen duten enpresek debekatuta dute atez ate kontratatzea, non eta kontsumitzaileak, aldez aurretik, bisitaldia espresuki eskatu ez duen. Gobernuak erabaki hori sartu du trantsizio energetikorako neurri urgenteei buruzko Errege Lege Dekretuan, argiaren prezio-igoera ikusirik**

**E**txez etxeko bisitaldiak egiten dituzten komertzialen **iruzurrezko jardunbideak** ohiko bihurtu dira gure artean. Seguru inoiz txirrina jo dizutela argiaren faktura merketuko lukeen tarifa-aldaketa eskaintzeko. Inoiz onartu baduzu, ordea, kontu korronteari begiratzean ohartuko zinen prezioa ez dizutela murriztu, eta, hori gutxi balitz, beste konpainia batek kobratu dizula. Konpainiaz aldatu dizute, **abisatu gabe eta iruzur eginez!**

Horrelako ekintzekin horixe lortu nahi dute, hain zuzen, zuri konpainiaz aldaraztea alegia, askotan zuri horretaz jabetzeko aukerarik ere

eman gabe. Batzuetan, mantentzearen edo aparteko beste zenbait zerbitzuren ordainketa ere sar dezakete kontratuan.

Horrelako jardunbideek iruzur eta engainu ugari dakartzate berekin, **adineko pertsonen** artean bereziki, atez ate produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituztenek badakitelako errazagoa dela pertsona horiei iruzur egitea. Alabaina, urriaren 6an Errege Lege Dekretu bat argitaratu zen, elektrizitatea eta gasa merkaturatzen duten enpresei metodo horri jarraikiz kontratazioak eta publizitatea egitea **debekatzeko**.



# 2018an Kontsumobidek elektrizitate- eta gas-enpresen aurkako **636 erreklamazio** jaso zituen, eta horietatik **%27 etxez etxe kontratatutakoak** ziren

## Publizitatea eta kontratazioak debekatu dira

Araudiak ezartzen duenez, argi- eta gas-enpresek ezin izango dute beren produktuei buruzko **publizitaterik edo kontrataziorik egin** etxez etxeko bisitaldian, non eta kontsumitzaileak, bere ekimenez eta aldeaz aurretik, hitzordua eskatu ez duen.

Hemendik aurrera konpainiek aukera izango dute **oraindik legezkoak** diren aukerak erabiltzen jarraitzeko, esaterako, kontratazioak telefonoz egiten edo merkataritza-guneetan zein beste toki batzuetan kokatutako informazio-guneen bitartez; bezeroak saltzailea bere etxera gonbida dezala ahalegintzeko aukera ere badute. ■



## Gomendioak

- › **Ez utzi inor** zure etxean sartzen, aldeaz aurretik haren zerbitzua eskatu ez baduzu.
- › Gas- edo elektrizitate-konpainiaz aldatu nahi baduzu, **lehenik eta behin, aztertu zure faktura:** fakturazioaldia, kontratatutako tarifa, aparteko zerbitzuak, etab. Horrela jakingo duzu zure premietara ondoen egokitzen den zerbitzua zein den.
- › Saihestu presio komertziala: **eskatu informazio guztia idatziz**, arretaz irakurtzeko. Pentsatu eskaintzen dizuten hori benetan behar ote duzun, eta konparatu beste aukera batzuekin.
- › Ezer sinatu baino lehen, **aztertu eskaintza** patxadaz, eta, zerbait ulertzen ez baduzu, galdetu.
- › **Ez eman inoiz** inori faktura bat edo zure egungo kontratuari buruzko informazioa eta datuak ematen dituen dokumenturen bat.



## Kontratu bat sinatzen baduzu

- › **Kopia bat** eman behar dizute, kontratatutako zerbitzuei buruzko informazioa barne.
- › Gainera, komertzialarekin zure helbidean bisitaldi bat hitzartzen baduzu, dokumentu bat eman behar dizute, non argi eta garbi adieraziko den kontratua bertan behera uzteko eskubidea duzula, azalpenik eman gabe eta inolako zigorrik gabe.



Kontratua sinatzen duzunez geroztik **14 eguneko** epea duzu kontratua bertan behera uzteko. Gogoratu zuk zeuk frogatu behar duzula kontratua epearen barruan bertan behera utzi izana. Bidalketa-data eta haren edukia egiaztatzen duen kanal bat erabili: gutun ziurtatu bat, burofax bat edo mezu elektronikoa bat, esate baterako.



Jardunbide **agresibo edo engainagarri** bat igartzen baduzu, **salatu** egoera poliziaren aurrean, edo **aurkeztu erreklamazio bat** Kontsumobiden edo zure helbideari dagokion Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan (KIUB).





# NutriScore: elikagaiak sailkatzeko semaforoa

Bost koloreko eta bost letrako etiketatze-sistema honen arabera, elikagai osasungarrienak berdez nabarmendu dira, eta nutrizio-kalitate txikiena dutenak, berriz, gorritz

**E**rosketak egitean elikagaietako etiketei erreparatzen al diezu? Konparatzen al dituzu? Etiketa produktuen **aurkezpen-txartela** da, produktuaren ezaugarriak erakusten ditu, eta erosi behar duzun edo ez erabakitzen laguntzen dizu.

Joan den azaroan Osasun Ministerioak iragarri zuen "NutriScore" **Aurrealdeko Nutrizio Etiketen** ezarpena, elikagai eta edarien **nutrizio-kalitatearen adierazgarri** izango dena. Bost koloreko semaforo hori erantsiko zaio produktu guztiek lehendik duten nahitaezko etiketari, eta kontsumitzaileei aukera emango die antzeko produktuen artean konparazioak egiteko, modu errazean. Hala, dieta osasungarri bati jarraitzeko erabaki informatu bat hartzeko aukera izango duzu.

Grafiko berria **laster ikusi ahal izango** da supermerkatuetan, baina neurria oraingoz borondatezkoa da.

## Nola funtzionatzen du?

NutriScore bost koloreko eskala bat da, berdetik gorria doana; berdea nutrizio-kalitate onena duena da, eta gorria, berriz, kalitate okerreduena duena.

Kolore bakoitzak letra bat dauka (A, B, C, D edo E), kodea irakurterazagoa egiteko. Produktu bakoitzak letra bat izango du **zirkulu baten barruan**, gainerakoak baino handiagoa izango dena. Elikagaiaren nutrizio-kalitatearen adierazgarri izango da, **100 gramo bakoitzeko** dauzkan koipe, gantz ase, kaloria, zuntz eta proteinen arabera.



Frantziako ereduaren oinarria da, baina Espainian Mediterraneoeko dieta hartuko da aintzat, Osasun Ministerioak jakinarazi duenez.



NutriScore eskalak **kategoria bereko** produktuak konparatzeko balio du, eta ez **kategoria ezberdinekoak** gurutzatzeko

### Nola erabili?

Litekeena da supermerkatuan kakao-krema bat oliba-poto batekin konparatzeko tentaldian erortzea, baina hori ez da NutriScore etiketa-sistema erabiltzeko bidea. **Kategoria bereko produktuak eta produktu bereko zenbait marka** (bi txokolate-tableta edo bi zereal-kutxa, adibidez) **konparatzeko** balio du, baina ez kategoria desberdinetako produktuak (txokolate-tableta bat eta maionesa-poto bat, adibidez) gurutzatzeko. Horrela eginez gero, elkarren artean oso desberdinak diren elikagaiak konparatuko genituzke, dietan toki desberdinak bete behar dituztenak.

**Salbuespenak.** Etiketa berria ez da ezarriko **osagai bakar batez** osatutako elikagaietan, esate baterako, olioan, esnean, eztian edo arrautzetan. Izan ere, osagai bakar batez osatutako elikagaiak eta elikagai prozesatuak ez dira gauza bera. Neurketa-sistema horren arabera, elikagai batzuek puntuazio okerragoa lor lezakete nutrizio-balio argi eta garbi txikiagoa duten beste batzuek baino. ■

! NutriScore sinplea eta ulerterraza da, baina horrek ez du esan nahi **nahitaezko etiketa** ahaztu behar dugunik. Produktuaren nutrizio-datu eta osagai guztiak aurkituko ditugu bertan.



### Open Food Facts: Elikagaien Wikipedia

**Open Food Facts** datu-base ireki bat da, mundu osoko 700.000 produktu baino gehiagori buruzko datuak biltzen dituena. Produktuen nutrizio-informazioa, osagaiak, alergenok eta elikagaietako etiketetan aurki daitezkeen datu guztiak daude.

**Boluntarioak** daude irabazi-asmorik gabeko proiektu horren buruan. Aplikazioari produktuak eranstean dizkiote, barra-kodea eskaneatuz eta produktu eta etiketen argazkiak igoz. Hala, hainbat produktu konpara ditzakezu, eta zure bilaketa-irizpideekin bat datozenak aurkitu. Batzuek NutriScore eskala ere biltzen dute.

“Open Food Facts” aplikazioa eskuragarri duzu, **iOs-erako eta Android-erako** baliagarri, baina <https://es.openfoodfacts.org> **webgunera** ere jo dezakezu informazio hori kontsultatzera.





## Ikuskatze-kanpainak, kontsumo seguruagoa egiteko

Kontsumobidek zenbait kanpaina egiten ditu kontsumitzaileen eskura jarritako produktuek eta zerbitzuek indarrean dagoen legediak ezarritako etiketa-, informazio- eta segurtasun-baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko. 2018. urtean egindako ikuskapen batzuek, oraindik araudia ez dela behar bezala betetzen erakusten dute

### Mozorroen ikuskapena

Jantzietako soka doigarri eta lokarriei dagokienez haur-jantzien segurtasun-araua betetzen ez zuten produktuak immobilizatu ziren kanpaina zehar. Baita etiketatze-araua betetzen ez zutenak ere.

lido horretan, oso garrantzitsua da produktuak **konfiantzako webgune eta saltokietan** erostea. Segurtasun-jarraibideei eta etiketei **erreparatu** behar zaio, EE marka eraman behar dutela aintzat hartuta.

### Ostalaritza-prezioen kontrola

Establezimenduek **prezioei buruzko informazioa eman** behar dute, eta prezioak BEZa barne hartuta adieraziko dira. Ikuskapenetik ondorioztatuenez, %33k ez zuten pintxoen prezioen berri ematen,

eta % 53k ez zuten ezer esaten alkoholdun konbinatuen publikoarentzako salmenta-prezioaren inguruan.

Gainera, lokaletan erreklamazio-orriek eskuragarri egon behar dute, norbaitek eskatzen dituenan eman behar zaizkio, eta ageriko toki batean jarri behar dira ikusgai (36 lokaletan ez zeuden ikusgai, eta 18 establezimendutan ez zegoen orririk).

### Neurriz gaineko klausulak urruneko mailegu-kontratuetan

**Online eta telefonoz** formalizatutako kredituen gaineko kontratu guztietan neurriz gaineko klausulak zeuden, esaterako, ez ordaintzeak gertatzen direnean kostu eta gastuen kobrantzari buruzko justifikaziorik ez ematea. ■

# Ekonomia zirkularra, zuk ere nahi duzu?



Gure eredu ekonomikoa erauzketan, produkzioan eta botatzean oinarritzen da, batik bat. Zergatik ez aldatu egitura lineal hori, eta, haren ordean, materialak eta baliabideak ekonomian ahalik eta luzaroen iraunaraztea ahalbidetuko duen eredu bat ezarri?

**A**spalditik ari gara gure planetaren hondamendiari buruzko albisteak entzuten: kutsadura, karbono dioxidoaren emisioak, milioika kilo zabor itsasoratuta, etab. Alabaina, krisialdi gogorrenetan **konponbiderik onenak** sor daitezke. Eta ekonomia zirkularra horietako bat izan liteke.

Betidanik, gure eredu ekonomikoak **egitura lineal** bati jarraitu dio: erauztea produzitzea eta botatzeari. Produktua fabrikatu, erabili eta botatzeko darabilgun modua oso **agresiboa da ingurumenarekin**. Prozesu horrek

hornidura-iturri material zein energetikoak agortzen ditu, klima-aldaketa bizkortzen du eta biodibertsitatearen galera areagotzen du.

Ekonomia linealaren eraginez hondakin kopuru itzela pilatzen da, horixe da eredu horren **arazo nagusietako** bat. Nola saihestu hori? Birziklatzeak laguntzen du, baina ez da nahikoa, hondakin guztiak ezin daitezkeelako prozesu horretatik pasatu.

Pixkana-pixkana gizartean sartzen ari den sistema azalduko dugu jarraian: **ekonomia zirkularra**.

## Etorkizun zirkularra

Gaur egun, birziklatzearen joera berriek ekonomia zirkularra proposatzen dute arazo larri horri aurre egiteko **alternatiba** gisa. Zer da, zehazki, hain modan dagoen ideia hori?

Kontzeptu horren helburua da produktuak, materialak eta baliabideak (ura edo energia, adibidez) ekonomian ahalik eta luzaroen iraunaraztea, **ahalik eta hondakin**


**gutxien sortuz** eta energia aurreztearen alde eginez.

Eredu horri jarraikiz, produktuak konpongarri eta eguneragarriak izango lirakeke, eta produktu horietako materialek bizitza bat baino gehiago edukiko lukete (horrela, hondakin gutxiago sortuko lirakeke). Alabaina, posible al da mundu hori? Bai, posible da. Gainera,

sortzen diren hondakinak material birziklagarriak dira, eta produkzio-zikloan sar daitezke prozesua hutsetik abiatu beharrik gabe. Hala, enpresek produzitzen jarraituko dute, baina naturatik baliabiderik erauzi beharrik gabe. Prozesu horri esker, atmosferarako **CO2 emisioak murrizten** dira, eta **klima-aldaketaren ondorioak geldiarazten** dira.

## Ekonomia lineala

Indarrean dagoen eredu ekonomikoak baliabide asko behar ditu, energia asko kontsumitzen du eta ingurumena kutsatzen du.



## Ekonomia zirkularra

Prozesu hau jasangarriagoa da, eta ingurumen-inpaktu txikiagoa du. Produktuen fabrikazioan ahalik eta material biodegarri gehien erabili behar dira, bizitza erabilgarria agortzen zaienean naturara itzultzeko aukera izan dezaten, ingurumenari kalterik egin gabe. Biodegarriak ez direnak produkzio-zikloan txertatzen dira berriz ere. Prozesu hori bideragarria ez bada, ahalik eta material posible guztiak birziklatzen dira.





## Aprobetxatu baliabideak murrizketaren, berrerabileraren eta birziklatzearen bitartez

### Zer egin dezakezu ekonomia zirkularrari zure ekarpena egiteko?

Gure artean asko dira telefono mugikor zaharra bota eta merkaturatutako azken modeloa erosten dutenak. Agian zuk ere inoiz egin duzu horrelako zerbait, esaterako, garbigailua hondatu zaizunean berri bat **erosi** duzu, **konpontzen ahalegindu beharrean**. Horrelako keinuak egiten dituzun bakoitzean, planetan gero eta urriagoak diren baliabideak agortzen ari zara.

Zer egin dezakezu etorkizun hori saihesteko? Ekonomia zirkularraren parte izatea zuk uste duzuna baino **errazagoa** da. Esaterako, erosi elikagaiak solteak, eta saihestu gehiegizko enbalajea duten produktuak; konpondu telefono mugikorra edo zapatak, berriak erosi beharrean; eta birziklatu hondakin guztiak, bakoitza dagokion edukiontzian botaz. Material horiek guztiak berrerabili ere egin ditzakezu, beste erabilera batzuk emanez. **Probatu zure irudimena!**

Elkarlaneko kontsumoa produktuak edo zerbitzuak partikularren artean **partekatzeko, oparitzeko, saltzeko edo alokatzeko** modu bat da. Fenomeno hori urtetan erabili da, baina Interneti esker sortu diren plataformek areago erraztu dute horrelako ekimenen bidea.

Keinu txiki batzuk eginez, ekonomia zirkularraren parte izan zaitezke. **Egin apustu elkarlaneko kontsumoaren alde**: lanera joateko autoa parteka dezakezu, etxerako gehiago erabiliko ez duzun mahaia sal dezakezu, edo dagoeneko janzten ez duzun arropa dohaintzan eman. **Zerbait bota baino lehen**, baloratu berrerabil dezakezun edo ez. Dagoeneko erabiltzen ez duzun edo behar ez duzun hori aprobetxatzeko modu asko daude. ■



Europar Batasunak onartu berri duen araudiak produktuen **bizi-zikloen zirkulua ixten** laguntzen du, birziklatzearen eta berrerabileraren bitartez. Helburua da **2035ean hiri-hondakin % 65 birziklatzeko aukera** izatea. Azken batean, planetaren baliabideak jasangarritasun handiagoz erabiltzeko modu ezin hobea da ekonomia zirkularra.

# Nola saltzen digute jaten duguna?

Elikagaien lotutako publizitateak nahasketa handia sorrarazten du batzuetan. Jarrera kritiko bat hartu nahi al zenuke mezu horien aurrean? Ez galdu "Nola saltzen digute jaten duguna?". Kontsumobideren Prestakuntza Zentroek eskaintzen dute tailer berri hori, publizitatearen, kontsumoaren eta nutrizioaren arteko harremana lantzeko



**Zeri erreparatzen diozu** produktu bat erosten duzunean? Elikagaien etiketa irakurtzearen garrantzia azpimarratzen da tailerrean. Pertsona asko publizitatean ikusten dutenarekin geratzen dira, etiketari arreta handirik eskaini gabe, nahiz eta etiketak esaten digun zein den **produktuaren benetako edukia**. Partehartzaileak zenbait tresnaz jabetuko dira, **publizitate-mezuei aurre egiteko** lagungarriak izango direnak, eta elikagaiak modu kritiko eta arduratsuan hautatzen ere ikasiko dute.

Batzuetan ontziak produktuari buruzko **informazio subjektiboa** ematen du, irudien edo nutrizio-aipamenei bitartez: "zero azukre", "light" edo "laranja %100", esaterako. Baina osagaiak eta nutrizio-etiketak dira elikagaiaren benetako konposizioa zein den erakusten

digutenak. Gauza izango al zinateke produktu bat erosterakoan informazio objektiboa soilik aintzat hartzeko, ontziaren diseinua alde batera utzita? Erronka zaila dirudi, baina uste duzuna baino errazagoa da azken batean. Produktuen paketeak (*packaging*) **sentsazio** batzuk eragiten dizkio pertsona bakoitzari. Ausartu sentsazio horiek interpretatzen, eta, jarraian, aztertu publizitateak zer mezu mota darabiltzan produktuak errazago saltzeko.

"Nola saltzen digute jaten duguna?" tailerrak oso harrera ona izan du ikasturteko lehen hiru hilabeteetan. Dinamika berritzailea da, autojakintzan eta aurkikuntzan oinarritutako formatuak jakin-mina bizirik mantentzen duelako jardura osoan. **Ezin dezakezu galdu!** ■



Hamabost urtetik gora kontsumo arduratsuekin lotutako prestakuntza-jarduerak diseinatzen, egiten eta garatzen! Denbora horretan, Kontsumobideek ekintza berriak jarri ditu abian, kontsumitzaileen premietara egokitzeko helburuarekin. Kotsultatu Prestakuntza Zentroek eskaintzen dituzten jardura guztiak [www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus) webgunean.



2018/302 Araudia (EB), justifikatu gabeko blokeo geografikoa eta beste diskriminazio modu batzuk saihesteko neurriei buruzkoa

## Online erosketak: EBk blokeo geografikoa bertan behera utzi du

Oztopo hori kenduz, mugarik gabeko merkatu digital bakarra sustatu nahi da



Alemaniko webgune batean aurkitu duzu bila zabiltzan produktu hori, baina ordainketa egitean webguneak detektatu du beste herrialde batetik konektatu zarela, eta ez dizu transakzioa amaitzeko modurik eman.

Blokeo geografikoak beste herrialde bateko webgune batean produktuak edo zerbitzuak erosi nahi dituzten pertsonak **diskriminatzen** ditu.

Batzuetan **murrizketa justifikatuta** dago, legeria nazionalak tartean daudelako, edota kontratuaren aurreko informazioaren hizkuntza-eskakizunak edo garraio-kostu osagarriak direla-eta, besteak beste. Beste batzuetan, ordea, blokeoa **ez dago justifikatuta**, eta diskriminazioa sorrarazten du pertsonaren nazionalitateagatik, bizilekuagatik edo kokalekuagatik. Eta azken blokeo horiek ezabatzea da, hain zuzen ere, 2018/302 Araudiaren (EB) helburua.

2018ko abenduaz geroztik, EBko online dende ezin dute, nazionalitatearekin, bizilekuarekin edo kokalekuarekin zerikusia duten justifikaziorik gabeko arrazoiengatik:

- › **Blokeatu edo mugatu** beren webguneetan sartzeko bidea.
- › Beste herrialde baten web-orrialdearen bertsio batera **birbidali**, non eta pertsonak, argi eta garbi, bere baimena ematen ez duen.
- › **Beste baldintza edo ordainbide** batzuk ezarri.
- › Beren produktu edo zerbitzuak erosteko beste baldintza orokor batzuk **ezarri**, prezioak barne, honako kasu hauetan:
  - › Estatu kide batean entregatu behar diren produktuak, baldin eta saltokiak leku adostu batean **entregatzeko edo jasotzeko zerbitzuak** eskaintzen baditu.

- › **Online zerbitzu** jakin batzuk, webguneetan informazioa sartzea edo datuak gordailutzea, adibidez.
- › **Saltokiak** diharduen herrialdean **eskainitako zerbitzuak**, hoteletan ostatu ematea edo ibilgailuak alokatzea, adibidez.

### Erregelamendutik kanpo geratzen dira:

- › Egile-eskubideek **babestutako edukiekin** zerikusia duten zerbitzuak eta euskarri fisikorik gabeko obrak; esaterako musika datu-korrontean ematea edo liburu elektronikoak.
- › **Ikus-entzunezko zerbitzuak**, kirol emanaldiekin eta lurralde-lizentzia eskusiboekin zerikusia dutenak, adibidez.
- › Txikizkako **finantza-zerbitzuak**, ordainketa-zerbitzuak barne.
- › **Garraio-zerbitzuak**, bidaiarien garraiorako txartelen salmenta, bereziki.
- › **Gizarte-zerbitzuak** eta **osasun-arretako** zerbitzuak.

EBk espero du blokeo geografikoaren debekua transakzioak indartzeko baliagarri izatea. Gaur egun, Europako herritarren %15ek soilik erosten du online beste Estatu kide batzuetako dendetan. ■





## TELEFONIA MUGIKORRA - Bermealdian dagoen terminal baten konponketa

? Bermealdian dudan telefono mugikorra konpontzen ari dira, beste terminal bat utzi behar al didate konpondu bitartean?

Ez dago **legezko betebeharririk**. Batzuetan, establezimendu jakin batzuek aukera hori eskaintzen diete bezeroei, baina **borondatezkoa** da. Araudiak kasu honetan adierazten duen gauza bakarra da bermealdian dagoen produktu baten konponketa zentzuzko epe batean egin beharko dela eta kontsumitzailearentzat eragozpen handirik sortu gabe, produktuaren izaera eta helburua kontuan hartuta.



## HORNIDURAK - Ez ordaintzeagatik etendako zerbitzua birkonektatzea

? Fakturak ez ordaintzeagatik argia eten zidaten. Zor nuen kopurua ordaindu dut baina, horrez gain, birkonektatzeko beste kopuru bat eskatzen didate, bidezkoa al da hori?

Ez ordaintzeagatik hornidura eten badizute, zor duzun kopurua ordaindu behar duzu, baita sortutako interesak eta birkonexio gisa baimendutako zenbatekoa ordaindu ere. **Hurrengo egunean** hornidura birjarri behar dizute, **beranduenez**.

Etetea justifikatua bada, birkonexioa indarreko lotura-eskubideen **bikoitza** izango da, gastuen konpentsazio gisa.



## EROSKETAK - Merkealdian deskontu-txartelak erabiltzea

? Deskontu-txartel bat daukat eta merkealdian erabili nahi izan dut; dendan, ordea, ez didate onartu. Legezkoa al da hori?

Merkealdian deskontu-txartel bat ez onartzeko lege-arrazoirik ez dago, non eta hori adierazten duen **abisu edo oharrik** agertzen ez den.



Kontsulta iezaguzu

Lurralde Zerbitzuan edo gure webgunean: [www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

# 10 trikimailu berokuntzan aurrezteko



Aldian behin, aztertu **galdara** eta **gas-instalazioa**, eta **purgatu erradiadoreak** beharrezkoa bada



**Saihestu bero-galerak**, kristal bikoitzeko leihoekin, burleteekin, pertsianekin, alfonbrekin, gortinekin, etab.



Erabili termostato programagarriak, berokuntza zure ordutegietara egokitzeko. **Energian %8tik %13ra bitarte aurreztuko duzu**



Etxean nahikoa da 20°-ko tenperatura edukitzea. Hortik gorako gradu bakoitzeko, **faktura % 7 igotzen da**



Gauean, itxi leiho, pertsiana eta gortinak, **beroa mantentzeko**. Ez utzi tenperatura 15 gradutik behera jaisten



Aireztatu, baina neurriz. 5-10 minutu nahikoak dira **airea berritzeko**



Utzi **erradiadoreak** libre. Airearen zirkulazioa oztopatzen baduzu energia gehiago kontsumituko duzu




Jarri **balbula termostatikoak** erradiadore bakoitzean, gela bakoitzeko beroa kontrolatzeko



Etxean, jantzi **berogarriak**. Berokuntzaren helburua ez baita guk beroa izatea, hotzik ez izatea baizik



Aprobetxatu **egun eguzkitsuak** eta utzi beroa leihoetatik sartzen



*zuregandik gertu  
cerca de ti*

**BILBAO**

Recalde Zumarkalea 39 A

Tel. 94 403 24 36

[kb-bizkaia@kontsumobide.eus](mailto:kb-bizkaia@kontsumobide.eus)

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

Easo 10

Tel. 943 02 25 47

[kb-gipuzkoa@kontsumobide.eus](mailto:kb-gipuzkoa@kontsumobide.eus)

**VITORIA-GASTEIZ**

Santiago 11

Tel. 945 06 21 61

[kb-araba@kontsumobide.eus](mailto:kb-araba@kontsumobide.eus)

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO